



TXIKITTO!

2022ko abendua 212. zenbakia



IRITSI DIRA URTEKO EGUN MAGIKOENAK

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	EUSKARAREN EGUNA..	10
IKASLEEKIN	4-5	DENBORAPASAK	11-13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
ESKULANAK	8	ZU BAI MARGOLARI...	16
GABONAK	9		

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Silbia Hernandez

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Mutil bat izozki denda batean sartzen da eta dendariari esaten dio:

- Emango didazu izozki bat?
- Zer zaporekoa?
- Berdin zait, erori egingo zait eta.



Jaimito amarengana doa eta galdetzen dio:

- Amatxo, amatxo, txokolate gozokiak ibiltzen al dira horman?
- Ba ez, Jaimito. Gozokiak ez dira ibiltzen.
- A, ados, orduan labezomorro bat jan dut.

Irakasleak:

- Esku honetan 8 laranja baditut eta bestean 6 laranja, zer daukat?
- Esku erraldoiak, andereño!



Zein da frutarik graziosoena?

Laranja, ja, ja.
Eta frutarik zaharrena?
Saharra (sagarra)



Jaimitok, eskolan, egun batean ikasi zuen munduak bueltak ematen dituela eta etxera joan zenean amari kontatu zion.

Ondoren amak supermerkatua bidali zuen.

Atera zen kalera eta kaleko banku batean eseri zen.

Askok tardatzen zuenez, ama bila joan zitzaion eta esan zion:

- Zergatik zaude hor eserita?
- Supermerkatua niregana etortzeko zain nago.

Inor ume baten izena da.

Jaimitok sokorristari esaten dio:

- Inor uretara jausi da.
- Inor jausi bada, hobeto.
- Ez, ez Inor umea!





NOLA OSPATU DUZUE EUSKARAREN EGUNA?



BIDEOA



Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen Eibarren. Larunbata izanik, herriko eskoletan bezperan egin zituzten ospakizunak, aldizkari honetan bertan ikus dezakezuen moduan. Urkizu ikastetxera jo dugu eta 6. mailako sei neskatila jatorrek kontatu digute nola ospatu duten egun handi hori eskolan.

PAULA ALONSO,
11 URTE



Euskararen Egunerako gela bakoitzak kartoizko kaxa bat prestatzen du; margotu eta apaindu egiten dugu eta goiburua jartzen diogu. Nire gela 6B da eta gure goiburua izan da “6B euskararen alde!”. Eta gero, kaxa guztiekin euskararen dorrea osatzen dugu eskolaren sarreran. Gure adinekoen artean ez dut uste euskara asko hitz egiten dugunik, gehiago egin beharko genukeela uste dut. Eta jendea ere animatuko nuke gehiago egitera.

GIULIANNA ANTUNES,
11 URTE



Egun horretan oso ondo pasatzen dugu eskolan. Mailaka kaxak apaintzen ditugu, 1go mailatik hasita 6. mailara arte. Kolore alaiekin margotzen ditugu, leloa jartzen diogu... eta euskararen dorre dotorea osatzen dugu denon artean. Nire ustez Eibarko kaleetan ez da euskara asko entzuten eta gure adinekoen artean ere ez. Horregatik iruditzen zaizkit hain inportanteak Euskararen Eguna bezalako egunak.



GEMALI RUGAMA,
12 URTE

Euskararen dorrea egiteaz gain, abestu ere abesten dugu. Aurten, adibidez, bi abesti kantatu ditugu: “Guk Euskaraz, zuk zergatik ez?” eta “Esazu hitz bat”. Gure gelakoen goiburua izan da “Gu Euskaraz bagara onenak gara”. Guraso Elkarteko gurasoak ere etorri dira aurten eskolara eta txokolate goxo-goxoa prestatu digute, gailatekin jateko. Euskara batez ere ume eta gurasoen artean entzuten da. Baina denek egin beharko genuke gehiago.



RIHAB TOWIMI,
12 URTE

Egun berezia izaten da Euskararen Eguna eskolan. Gelan kaxak prestatu eta gero, mailaka eta ordenean, eskola sarrerara joaten gara dorrea osatzera. Egun horretan oso ondo pasatzen dugu. Arratsaldean txokolatea gailatekin prestatzen digute Guraso Elkarteko gurasoek eta oso goxoa egoten da. Eskolan egiten dugu euskaraz baina eskolatik kanpora ez hainbeste. Gehiago egin beharko genuke kalean ere.



LALA TALEB,
12 URTE

Oso ondo pasatzen dut Euskararen Egunean. Gauza asko egiten ditugu eskolan. Sarreran gabonetako zuhaitza jarri dugu, baina apaingarririk gabe. Orduan, eskolan euskara entzuten den bakoitzean edo euskaraz hitz egiten dugunean apaingarriren bat agertzen zaio arbolari, magiaz! Eta horrela, pixkanaka-pixkanaka, apaintzen doa. Espero dut oporrak hartzeko egunean apaingarriz bete-beteta egotea gure zuhaitza!



MASSIRE DIENG,
11 URTE

Eskolako sarreran taldeko argazkia ateratzen dugu eta bertan azaltzen dira gabonetako zuhaitza, euskararen dorrea eta zelan ez, gantxilla! Tantanez Tantan ekitaldian euskararen aldeko olatua irudikatzeko erabiltzen da Eibarren gantxilla eta gure eskolako Euskararen Egunean ere bere lekua eman nahi izaten diogu, garrantzitsua da-eta. Kalean euskara oso gutxi erabiltzen dugula uste dut. Euskal Herriko hizkuntza da eta egiten ez badugu galdu egingo da. Gure esku dago hori ez gertatzea.



ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunok! Hemen gaude San Andres, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna eta Euskararen Nazioarteko egunak ospatu berri!!! Eta lehenengo hiruhilekoari amaiera borobila emateko, abenduaren 23an, auzoan zehar gabon kantak abestera aterako gara eta ondoren Olentzeroren bisita izango dugu eskolan!!! Eta hori eta gero ondo merezitako oporrak hartuko ditugu!! Beno, lagunok, ongi pasa oporrak eta hurrengo urtera arte!!!



URKIZU

6. mailako ikasleak Zarautzeko EROSKI saltokira joan ziren. Bertan, sukaldari baten laguntzaz erosketa egin zuten ondoren menu osasuntsu bat egiteko: txitxirio humusa, barazkien risottoa eta mamia. Ona ezta? 2. mailakoak Basondora joan ziren. Zein animalia politak ikusi zituzten! 6. mailakoek tabakoaren prebentzio tailerrak ere izan zituzten. Zein gai garrantzitsua! LHko taldeek kontsumo tailerrak egin dituzte. Gaiak oso desberdinak izan dira: energia, sare sozialak... eta abar. Eta azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna, edukiz bete genuen, hormirudi handiak eginez, umeen eskuak bertan marraztuz eta puxika moreekin apainduz.

ALDATZE

Azaroaren 18an Probidentzia eguna ospatu genuen. Goiz horretan tabernak, showak, jokoak, herri-kirolak, ileapaindegiak etb. antolatu ziren eta giro apartarekin gozatu genuen ikasle eta irakasleok. Bestalde, 6. mailakoak liburutegira hurbildu ziren eta bertan funtzionamenduaz eta zerbitzuetaz informatu gintuzten era atsegin eta ludikoan. Tabakismoari eta drogei buruzko tailer bat ere egin zuten eta gauza ugari ikasi zituzten. Azkenik, Sanandresak direla eta Ozeanoen egoera jorratu dugu, kutsadurak, plastikoeak eta petroleoak gure itsasoetan duten eragin negatiboaz jabetuz.





SAN ANDRES

Aurten, azkenean bai! Azaroaren 29an, San Andres bezperan, eskola prestatuta zegoen eibarrantrentzat hain esanguratsua den eguna ospatzeko. Eskolara sartu eta bertsoak abestu genituen. Goizean zehar taloak egin genituen eta eguerdi aldera, horiek jateko aukera izan genuen; batzuk, txorizoarekin eta beste batzuk, gaztarekin. Arratsaldean, aurreko asteetan ikasitako euskal dantzak dantzatu genituen: Txulalai, Zazpi jauzi, Courinta... Egunean zehar, eskolako aretoan antolatutako azoka ikusteko aukera ere izan genuen. Egun biribila izan zen!



ITURBURU

Abenduaren 1ean, Iturburuko 1. mailako ikasleak Izenaduba basoan egon ziren. Olentzero, Maridomingi eta beste pertsonaia mitologiko asko ezagutzeaz gain, Sorginen baratza eta NAPO astoa ere ikusi zituzten. Olentzerok, beraren istorioa kontatu zien eta gure ikasleek adi-adi jarraitu zituzten Olentzeroren azalpenak. Dagoeneko Olentzerori eskatuko dioten oparia pentsatzen arituko dira asko eta asko... Ea ba zortea duzuen. Txintxoak izan bazarete, egon lasai! Magiaz betetako eguna igaro zuten.



AMAÑA

Kaixo lagunok, Amaña herri-eskolatik! Aurten Gaztainerre egun berezia ospatu dugu eskolan. Gaztainak jan baino lehen, ariketa pixka bat egin genuen. Antzinako euskal jolasak antolatu genituen. Denok hartu genuen parte eta primeran pasatu genuen! Orain gabonetako opor luzeak datoz, ondo merezitakoak, eta espero dugu denok ondo-ondo pasatzea. Bueltan izango dugu elkarren berri!



LA SALLE

Hiruhilabetea bukatzean dago eta igartzen da opor usaina... 6.mailakoak Ipar surf eta skate eskolak Matsarian duen skateparkean egon dira skate klaseak jasotzen. Zoragarri pasatu zuten esperientzia berri honetan. 3.mailakoak Ipuruara joan ziren euskararen baloia ikustera. Belarra ikutu, jokalarien aldageletan sartu eta prensa-gelan egoteaz gain, Gaizka Garitano eta Maria Zeberiorekin elkarrizketa txiki bat izan zuten. Eta eguna biribiltzeko, hurrengo partidurako sarrerak oparitu zizkieten. Ze pozik irten ziren denak, partidura joateaz gain, Eibarrek irabazi egin zuen!!





Dekoratu Gabonetako zuhaitza

Gabonetako zuhaitza apaingarriekin janzten dugu eta, oraingoan, geure eskuekin egin dezakegun apaingarria egiteko aukera eman nahi dizuegu.

OSAGAIAK:

- Beirazko ontzi baten tapa
- Eskulanetarako kola txuria
- Brotxa
- Zilar kolorezko brillantina
- Itsasgarria
- Kolore berdez dekoratutako kartoizko lastotxoak
- Guraizeak
- Zinta gorria



NOLA EGIN:

- 1.- Tapa ondo garbitu.
- 2- Kola txuria eman taparen barruan.
- 3- Brillantina bota kolaren gainean eta lehortzen utzi. Pixka bat astindu, soberan dagoena kentzeko.
- 4- Lastotxoa luzeera ezberdinetako zatitxoetan moztu, zuhaitz itxura emateko.
- 5- Zatitxoak tapan itsatsi.
- 6- Zintaren zati bat moztu eta taparen kanpoko aldean itsatsi, zuhaitzean zintzilikatu ahal izateko.

GOROSTIA TAPOIEKIN

Lehengoa gutxi balitz, Gabonetarako beste apaingarri bat egitea proposatuko dizuegu: botilen tapoiekin egindako gorostiak. Horretarako, lehenik, ontzi batean kola zuria purpurina gorriarekin nahastu behar da eta nahasketa horrekin tapoia margotu. Lehortzen laga eta beste kapa bat eman, distiratsu geratu arte. Gero, kartulina berde baten bi gorostihosto marraztu eta moztu, eta errotulagailu berde batekin hostoaren marratxoak marraztu. Tapoia hostoen gainean itsatsi eta baita zinta berdea ere. Horrela, itsasgarria lehortzen denean, apaingarria prest izango duzue zuhaitzean zintzilikatzeko.





IRITSI DIRA URTEKO EGUN MAGIKOAK

Gabonak indartsu datoz aurten. Herrian ekintza ugari antolatu dituzte Gabonez gozatzeko eta aste hauek magikoak bihurtzeko. Ondo pasa Gabonak!

GABONETAKO HAUR PARKEA

Parkea 2 eta 12 urte arteko umeei zuzenduta dago, lagunekin disfrutatzen eta ondo pasatzeko.

- SARRERAK: 3 euro edo doan Eibar Merkatal Gune a bonoarekin.
- Sarrera ordu eta erdirako baliozkoa da.
- ABENDUAK 26, 27, 28, 29, 30: 11:00-14:00 // 16:30-20:30
- ABENDUAK 31: 11:00-14:00
- URTARRILAK 3, 4: 11:00-14:00 // 16:30-20:30

OLENTZEROREN KALEJIRA

Badator Olentzero! Urtebete zain egon eta gero, Olentzero berriz jaitsiko da herrira abenduaren 24an eta kalejira egingo egingo du 11:30ean, Urkizutik hasita Untzagaraino. Kalejira musikaz girotuko dute Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoek, Adolfo Jainagaren ikasleek, Eibarko Kantuzaleek eta Kaleetan Kantuzekoek.

Untzagara heltzean, 12:30 inguruan, Olentzero Udaletxean egongo da umeekin azken eskutitzak jasotzeko. Dena dela, gutuna alde aurretik eman nahi izanez gero, Olentzeroren Buzoia Pegoran eta Portalean aurkitu dezakezue dagoeneko.

ERREGEAK

Urtarrilaren 5ean Erregeak izango ditugu herrian eta, euren etorrera ospatzeko, zenbait ekitaldi egingo dira.

DANTZA

Ipuru Dantza Garaikideko Taldeak, Ballet Eibarresek, Kaxak eta Ipuru Gimnasia Erritmikoko Taldeak emanaldia eskainiko dute Ipuru kiroldegian, 17:00etan.
- SARRERAK Portalean jaso ahal izango dira abenduaren 20an, 09:00etatik aurrera.



KABALGATA

Erregeek, Eibarko Musika Bandaren laguntzarekin, kalejira egingo dute, 19:00etan. Untzogatik irtengo dira eta, herria zeharkatu ondoren, Untzagara itzuliko dira berriz. Ondoren, gutunak jasoko dituzte udaletxeko patioan.

ANTZERKIA

Glu-Glu konpainiak 'Munduari itzulia 80 egunetan' izeneko antzezlan eskainiko du abenduaren 27an, 17:00etan, Coliseo antzokian. Bertan Phileas Fogg-en eta haren morroi Passepartout-en gorabeherak kontatuko dituzte, modu komiko eta musikalean. Gainera, aktoreen artean aurpegi ezagun bat izango dugu: Andrea Covadonga eibartarra.
- SARRERAK: 5 euro.



EUSKARAREN EGUNA EIBARKO ESKOLETAN



AMAÑA



ARRATEKO ANDRA MARI



ITURBURU



LA SALLE



SAN ANDRES



URKIZU



ALDATZE




10 DESBERDINTASUNAK



GURUTZEGRAMA

ASTEKO EGUNAK



Astelehena
 Asteartea
 Asteazkena
 Osteguna
 Ostirala
 Larunbata
 Igandea



LETRA-ZOPA

T	X	E	R	R	I	A	O	I	?
I	A	R	R	U	K	A	X	T	A
H	C	N	P	O	B	C	A	G	L
O	P	L	U	V	A	A	H	U	D
C	N	K	D	N	G	H	A	N	?
P	L	J	E	T	L	A	?	?	A
L	U	I	F	X	I	T	E	Y	A
U	I	H	G	O	O	O	A	I	X
E	C	O	L	K	A	T	V	A	X
D	Y	O	Z	A	I	X	T	N	U
U	R	S	T	Y	?	K	A	V	H

TXERRIA
 TXAKURRA
 OI LOA
 ZALDIA
 KATUA
 UNTXIA
 AHATEA

MARRAZTU GESTE
 ETA MARGOTU



ERDIA
 ↓

SUDOKU

4	2	3	6	1	5
	6	5	2	4	
5	3		1		3
	1		3	5	4
3	4	6	5		7
	5	1			6

LABIRINTOA





6 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **URTARRILAK 12** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa NAIA BALENTZIAGA txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

**Ernesto eta Zelestina, Eguberriak etxean** 6 urtetik aurrera

Eguberriak ospatzeko nahikoa da Zelestinak adina gogo eta irudimena izatea; bere lagun Ernesto, ordea, kezkatuago dago neguko hotzarekin eta festa hori antolatzeko beharko luketen eta ez duten sosarekin. Baina, momentuko desilusioez haratago, Zelestina beti berearekin ateratzen da.

**7G udalekuak** 8 urtetik aurrera

Liburu hau desberdina da. Istorio honetan gertatuko dena ZURE eskuetan dago. Zu zara protagonista. Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Zure gaitasunak eta adimena erabili beharko dituzu. Erabaki txar batek hondamendia eragin lezake... eta heriotza ere bai!

**Cube arts, manga Euskaraz** 10 urtetik aurrera

Batxilergo 1. mailako ikaslea da Takuto. Halako egun batez, etxean jaso du Cube Arts izeneko jokoaren demo bertsioa. Beta test-erako aukeratua izan da! Errealitate birtualeko kaskoa jarri bezain laster, blokez egindako mundu amaigabe bat azaltzen da bere aurrean. Sandbox joko aske honetan, aukerak mugagabeak dira: mineralak bilatzea, eraikitzea, armak egitea, abeltzaintzan jardutea, ehiza egitea... edo borrokatzea.

**BITXIKERIAK**

Gure oinak besaurrearen neurri berekoak dira.



Kokoek tiburoiek baino pertsona gehiago hiltzen dituzte. Urtean 150 pertsona hiltzen dira munduan koko batek jota.

Zoparik zaharrena k.a. 6.000. urtekoa da. Hipopotamo- eta txolarre-haragiarekin egiten zen.





Kira eta Ane

Bazen behin Kira izeneko txakur bat. Baserri batean bizi zen eta beti zegoen oiloen atzetik korrika. Bere jabea Ane deitzen zen, eta Kira asko zaintzen zuen. Askok maite zuten elkar. Goiz batean, Ane Kirari janaria jartzera joan zen eta oiloak ez zeuden betiko lekuan. Ane bila eta bila egon zen eta ez zituen aurkitu. Bere amari eta aitari deitzera joan zen. Ane oso triste zegoen. Aita, ama eta Ane basora abiatu ziren oiloak eta Kira aurkitzera.

Errekaren ondoan zarata handi bat entzun zen. Orduan, Kira ikusi zuten zaunka eta zaunka. Azeri bat zegoen, eta bere ahoan oilo bat zeukan. Beste oiloak han zeuden, oso beldurtuta. Azeria Kira horrela ikusirik beldurtu egin zen eta oiloa askatu zuen. Oiloa ondo zegoen.



Familiak Kira zoriondu zuen eta etxera joan ziren poz-pez. Anek janari ederra jarri zion Kirari sari moduan. Zelako ausarta den nire Kira!!

ALAITZ GURIDI



ZU BAI MARGOLARI!

